

ELIZATXO  
IKASTOLA

ELIZATXO IKASTOLAKO

HEZKUNTZA  
PROIEKTUA



## AURKIBIDEA

### ❖ SARRERA

### ❖ IDENTITATE EZAUGARRIAK

1. Hezkuntza prozesu integrala.
2. Oinarri metodologikoak.
3. Eskola euskalduna.
4. Aniztasuna eta balore parte-hartzaileak.
5. Eskola hezkidetzaileria.
6. Konfesionaltasuna.

### ❖ HELBURUAK

1. Pertsonalak.
2. Hezkuntza helburuak.
3. Hizkuntza eta kulturarekiko helburuak:
  - Pedagogi arloan
  - Instituzio arloan
  - Giza eta zerbitzu arloan



## SARRERA

Elizatxo Ikastola 1988-1989 ikasturtean sortu zen lerro bakar bateko ikastetxea zelarik. Hamasei irakasle eta guraso batzuk osatutako talde sutsu batek hartu zuen ikastola aurrera eramateko ardura. Lan eta ilusioz beteriko garaiak izan ziren eta laster pasa ginen bi lerrotako ikastetxea izatera.

1993-1994 ikasturtean sare publikoan sartzea erabaki zen. Ondoren, Hezkuntza Sailak hezkuntzaren erreforma eta, honekin batera, mapa eskolarra eratu zuenean, Gabriel Celaya zen ikastetxea gurean integratu zuen eta bertan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxea jartzea erabaki zuen.

2010-2011 ikasturtean Hezkuntza Sailak egindako planifikazioaren ondorioz, Hernaniko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hiru ikastetxe publikoak elkartzen dira.



# IDENTITATE EZAUGARRIAK

## 1. Hezkuntza prozesu integrala

- 1.1. Heziketaren oinarritzko helburua, pertsonaren garapen integrala da. Garapen hau, nortasunaren atal hauetan gauzatuko da: motorezko eta intelektual mailan, oreka pertsonal eta afektiboan, pertsonarteko harremanetan eta gizarte jardueran.
- 1.2. Ikasle bakoitzaren ezberdintasuna onartuko da, bakoitzaren heldutasun maila, erritmoa eta gaitasun intelektualak kontuan izanez, bakoitzaren positibotasuna indartuz eta guztiei adierazteko aukera emanez.
- 1.3. Bakoitza nor izan dadin, bere kabuz jokatzeko ikas dezan, pertsona libre, kritiko eta autonomoa izaten lagunduz.
- 1.4. Guztiok partaide eta solidario garen gizartean, bakoitza, norberaren originaltasuna besteei ekartzeko gai izatera bultzatuz.
- 1.5. Eskola inklusiboa izateko pausoak emango dira, bereizketarik egin gabe diskriminazio mota guztiak baztertuko dira. Ikasleen artean eman daitezkeen prozesu eta erritmo ezberdinentzat baliabideak eskainiz.
- 1.6. Elizatxo Eskola komunitateak “Elkarbizitza positiboa” proiektua bultzatu nahi du. Horrela berdintasuna, errespetua eta adiskidetasuna bihurtu nahi ditugu gure harremanetarako oinarri. Eskolako partaide guztien artean komunikazioa eta parte hartzea sustatu nahi ditugu. Eskolak proiektu hau aurrera eramateko antolatzen du:
  - ❖ Elkarbizitza-plana. Guztion artean elkar zaintzeko kultura garatzen saiatzen gara, norberaren burua eta gainerakoena zaintzea aberastasun eta poztasun iturri izanik.
  - ❖ Elkarbizitza-behatokia. Honen xedea lau estamentuen arteko kolaborazioa lortzea izango da; hau da, ikasle, guraso, irakasle eta hezitzaileen arteko, elkarbizitza bidez, arazo baten aurrean



irtenbideak bilatzea.

- 1.7.** Ikastetxea ingurumenarekiko arduratsua eta errespetuzkoa den praktika baten eredu bilakatzea izango dugu helburu eta ikasleek ingurumenaren kalitatean eragina duten ataletan parte hartzea, laguntzea, erabakiak hartzea eta inplikatzen ohitzea.

## **2. Oinarri Metodologikoak**

- 2.1.** Elizatxo Ikastola irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraginkorra eta esanguratsua gerta dadin, aurretikako ezagueretatik abiatu eta irakasle-ikasleen arteko afektibitatea lortzen ahaleginduko da. Horretarako, irakaskuntzaren atalak, hauek dira, akademikoa, emozio-afektiboa eta soziala, osotasunean eta modu banaezinaz landuko dira. Ondorioz, ikaskuntzaren ebaluazioan ere, atal hauek bat eginik eta bere osotasunean hartuko dira.

- 2.2.** Ikastola bizi den ingurunearekin konektatuta eta bizitzara irekita dagoen eskola izan nahi du, zentzu kritikoaren garapena bultzatuz.

- 2.3.** Eginez ikastea metodorik onena dela pentsatzen dugunez, eskola, bizitza eta ingurua ahalik eta estuenik loturik mantentzen saiatuko gara. Horretarako, errealitatea ikuspuntu ezberdinetatik aztertzen eta ezagutzen saiatuko gara.

- 2.4.** Ikasleen arteko eta irakaslearekiko harremanak positiboak izatea edozein lan intelektualerako beharrezkoa denez, irakasleriak oinarri bezala hartuko ditu bere eginkizunetarako.

- 2.5.** Haurra bere osotasunean hartzen duten proiektuetan oinarritzen gara; batez ere, Haur Hezkuntzan Urtxintxa eta Lehen Hezkuntzan Txanela.

Bi proiektu hauen helburuak hauek dira:

- ❖ LOEk eta EAEko 175/2007 Dekretuak derrigorrezko eskolaldian oinarritzko prestakuntza lortzeko proposatzen diren gaitasunen garapena.



Hauek dira Oinarrizko Hezkuntzako curriculumeko oinarrizko gaitasunak:

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna.
  - Ikasten ikasteko gaitasuna.
  - Matematikarako gaitasuna.
  - Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.
  - Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna.
  - Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna.
  - Giza eta arte-kulturarako gaitasuna.
  - Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna.
- ❖ Ikaskuntza esanguratsua eskaintzen duena eta ikasle aktiboaren bila dabilena.
  - ❖ Haurraren etengabeko motibazioa bultzatzen duena.
  - ❖ Aniztasuna errespetatzen duena.
  - ❖ Balioen eta jarrerren hezkuntzarekin konprometitua.

**2.6.** Teknologi berriak. Elizatxo ikastola aitzindaria izan da Euskal Herrian informatika arloan, orain dela hamar urte PREMIA proiektuan sartu baitzen zentro piloto bezala beste ikastetxe batzuekin batera. Gaur egun ikastolak izugarritzko ahalegina egiten jarraitzen du arlo hau gure ikastolan ongi jorratzeko eta emaitzak aurrean ditugu: geletako programazioa, irakasleen formazioa, Eskola 2.0, proiektu telematikoak, web orria...

**2.7.** Hezkuntza prozesua bere osotasunean ebaluatzen da. Ikasle bakoitzaren egoera eta ezaugarriak kontuan izanik, atal akademikoa, emozio-afektiboa eta soziala ebaluatuko dira.

**2.8.** Talde lana sustatzeko eta oinarrizko gaitasunak landu ahal izateko metodologia egokitzen ari gara. Horrela, talde batzuk ikaskuntza kooperatiboaren dinamikak eta egiturak martxan jarri dituzte. Ekintza hauen balorazioa oso positiboa denez, esperientzia zabaltzea planteatzen dugu.



### 3. Eskola euskalduna

- 3.1. Elizatxo Ikastolan euskara izango da bertako hizkuntza ofiziala. Ondorioz, ikasle, irakasle, guraso eta gainontzeko kideek, harreman eta lan tresna gisa, euskara erabil dezaten bultzatuko da.
- 3.2. Euskara ez dakiten gurasoei ere eskubide osoak errespetatuko zaizkie, beraiekin izaten diren harreman mota guztietan. Hala ere, Ikastolak guraso hauek euskaldundu daitezen animatu eta bultzatuko ditu.
- 3.3. Elizatxo Ikastolak euskal kultura eta historia ezagutzeko, maitatzeko, lantzeko, sustatzeko, transmititzeko jardura eta konpromisoa eskatuko dio hezkuntza komunitateko kide orori.
- 3.4. Aldi berean, Hernanin euskara berreskuratzeko eta sustatzeko eginkizunaren eragile eta bultzatzaile bilakatuko da.

### 4. Aniztasuna eta balore parte-hartzaileak

- 4.1. Pluraltasun eta balore parte-hartzailetan oinarritutako heziketa sustatuko dugu.
- 4.2. Elizatxo Ikastolak herri eskubide kolektibo eta indibidualen aldeko jarrera baikor eta etengabea bultzatuko du, gizarte demokratikoaren baloreak landuz.
- 4.3. Ikastolak aniztasun ideologikoa izango du, hau da, pluralista izango da. Gizartearen onerako, ideologi ezberdinak elkarrekin lanean jarduteko aukera emango dugu.
- 4.4. Errealitatearen ikuspegi ezberdinak aztertzeke neska-mutilak euren bidea kritikoki aukeratzeko eta bideratzeko gaitasuna landuko da. Elkarrenganako errespetuan, besteen iritziak entzuten eta norberarenak azaltzen ikasiz, elkarriketarako gai izanez.



## 5. Eskola hezkidetzaileria

- 5.1.** Neska-mutilei beren nortasun indibiduala era osoan garatzeko aukera emango diegu. Norbere burua estimatzen ikasiz eta elkartasunean eta errespetuan oinarritutako harreman pertsonalak burutuz, heziketa afektibo-sexuala jasoko dute.
- 5.2.** Betidanik gizon eta emakumezkoenak kontsideratu direla kontuan hartu gabe, ikasle bakoitzaren baloreak, ahalmenak eta norberaren ezberdintasunak onartuko dira, generoaren estereotipoak gaindituz.
- 5.3.** Joera eta eduki diskriminatzaileak aztertzeke eta aldatzeke bideak jarriko dira:
- ❖ Sexista ez den hizkera erabiliz.
  - ❖ Bi generoen baloreak integratuz.
  - ❖ Erabiltzen diren testu eta irudietan, gizon eta emakumeak modu orekatuan azalduz.
  - ❖ Irakasle eta gurasoen heziketa hezkidetzaileria bultzatuz.

## 6. Konfesionaltasuna

- 6.1.** Elizatxo Ikastola ikastetxe akonfesional bezala definitzen da, beraz, erlijioarekin erlazonatutako gaiak ikuspegi historiko edo kultural batetik aztertzen dira eta ez doktrinamendu bezala.
- 6.2.** Ikastetxe honek bertako kideen artean egon litezkeen erlijio ezberdinak errespetatzen ditu, inolaz ere ez delarik izango diskriminazio iturri.



# HELBURUAK

Hasieratik planteatzen den bezala, gure proiektuaren helburu nagusia da hezkuntza integrala eskaintzea, beraz, nortasunaren atal hauetan gauzatuko da: motorezko eta intelektual mailan, oreka pertsonal eta afektiboan, pertsonarteko harremanetan eta gizarte jardueran.

Ondoren azaltzen diren helburuak ez dira ikasleentzat bakarrik, baita irakasleentzat eta gurasoentzat ere, eguneroko elkar erlazioan gure biziaren zentzua aberastu behar dela pentsatzen baitugu.

## 1. Pertsonalak

- 1.1.** Ikasle bakoitzak bere burua (autokontzeptua, zaletasunak, ahalmenak eta mugak) ezagutu, bai norberarekiko eta bai bere inguruekiko harremanak atseginak eta pozgarriak izan daitezzen.
- 1.2.** Autoestimu maila goratu, kritikoak (kritika, norbera eta ingurukoak, hobetzeko ekarpen positiboa bezala ulertu) eta kritikatuak izaten ohitu. Beti ere pertsoneri eta ideiei zor zaien errespetua bermatuz.
- 1.3.** Erlazio guztietan elkar errespetua eta laguntza nahiz elkarlanean jarrerak sustatu, besteak beste, norbere inguruarekiko sentsibilitatea, diferentziak ezagutu eta onartzea, lankidetzaren eta solidaritatea, injustiziaren aurkako erantzuna.
- 1.4.** Gizarte sexistak banatu duen rol bereizketa onartzen ez dugunez, banaketa hori baztertu eta hautapen libre eta pertsonalak egiteko aukerak eman.
- 1.5.** Guztiok, gure eta gizartearen osasuna defendatu eta sustatzeko behar diren oinarritzko ohitura, jarrera, etab., ezagupenak hartu.
- 1.6.** Kontsumo-gizarteak sortzen dituen arazoak konpontzeko aukera emango diguten ezaguera eta jarrerak eskuratu eta duintasunaren ideia garatu.
- 1.7.** Gizarte-komunikabideek duten garrantziaz ohartu, baloratzeko eta kritikatzeko gaitasuna garatu. Informazio hartzaile, igorle aske eta



arduratsua izan.

**1.8.** Bide Hezkuntza. Trafiko arauak ezagutzetik aparte, ikasleek bizi dituzten egoera errealei buruzko hausnarketa, sustatze, gizarte antolamendua ulertu eta irizpideen kontrastea eta eraketa estimulatu.

**1.9.** Erantzukizun pertsonala eta taldearena areagotu lanarekiko eta gizartearekiko.

## **2. Hezkuntza helburuak**

**2.1.** Elizatxo Ikastolak ikasle guztiei hezkuntza komun bat eman nahi die, oinarrizko kultur elementuak eskuratzea bermatuz. Horretarako konpentsazio eta aniztasunaren printzipioak funtsezkoak izango dira.

**2.2.** Elizatxo Ikastolaren identitatetik datozen ezaugarrien garapena ikastetxearen curriculum proiektuan txertatu. Hala nola:

- ❖ Euskara eta euskal kultura.
- ❖ Hezkidetzak.
- ❖ Aniztasuna aberastasun modura...
- ❖ Demokrazia baloreak (justizia, elkartasuna...)

**2.3.** Giza bizitza eta elkarbizitza gidatzen duten oinarrizko balioez konturatu eta berauek oinarritzat hartuz jokatu.

**2.4.** Talde jardueretan adostasunaren bidez eratzen diren arauak eta erregelak onartu, norberaren interesak eta helburuak artikulatzen ikasiz eta ikuspuntu ezberdinak errespetatuz, akordiotara iristeko gai izan. Kontsentsua deritzogu akordiotara iristeko biderik egokiena.

**2.5.** Lurraren osotasunaz jabetuz (bakarra eta denona) ahal den neurrian ingurugiroa babesteko, kontserbatzeko eta hobetzeko erantzukizuna gure gain hartu.

**2.6.** Heziketarako guraso eta irakasleen arteko erlazio zuzena ezinbestekoa denez, elkarlan giroa bultzatu.

**2.7.** Ikastolak, inklusiorako printzipioak errespetatuz, behar bereziak dituzten ikasleen jarraipen etengabea eramango du.



### 3. Hizkuntza eta kulturarekiko helburuak

#### Pedagogi arloan

- 3.1. Ikastetxeko komunikazio hizkuntza bakartzat euskara erabiltzea.
- 3.2. Ikasleak komunikazio egoera errealetan jartzea hizkuntzaren erabilgarritasun eta funtzionaltasunaz jabetu daitezen.
- 3.3. Euskararen erabilera eta normalkuntza ardatza izango da pedagogia, metodologia eta antolaketa arloan hartzen diren erabakietan.
- 3.4. Ikasleek duten euskararen ezagutza kontuan hartuko da:
  - ❖ Ikasleak taldekatzerakoan gelak heterogeneoak izan daitezen.
  - ❖ Gela barruan, lana antolatzerakoan, ama hizkuntza euskara dutenak ama hizkuntza gaztelania dutenekin nahastuko ditugu, azken hauek besteengandik ikas dezaten.
  - ❖ Hizkuntza zailtasunak dituztenei laguntza emango zaie, horretarako behar diren neurriak eskainiz.
- 3.5. Etapa amaieran, ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak menderatzea eta atzerriko hizkuntza bat (ingelesa) ulertu eta hitz egiteko oinarrizko maila lortzea.
- 3.6. Bertako eta inguruko herrien oinarrizko ezagutza historiko, sozial eta kulturala barneratzea, herri honen bilakaera eta garapenean aktiboki parte hartzeko gai izan daitezen, munduko beste herrialdeetako kulturekiko harremanetara irekita egonez.

#### Instituzio arloan

- 3.7. Gurasoengan euskararekiko motibazioa lantzea, bere seme-alaben euskarazko lanak baloratzeko edota beraiek hizkuntza ikasteari ekiteko.
- 3.8. Hezkuntza komunitateko partaide guztien arteko hizkuntza euskara izatea bultzatzea.



- 3.9** Euskararen zabalkuntza eta normalizazioa sendotzen duten jarduerak guztietan parte hartzea.
- 3.10** Ikastetxe, erakunde eta Administrazioaren arteko harremanak euskara hutsean bideratzea.
- 3.11** Euskal kulturarekin lotutako jarduerak bultzatzea eta beraietan parte hartzea.
- 3.12** Ikastetxearen beharrak eta baliabideak kontuan hartuz, irakasleei etengabeko prestakuntza eta berriztapena eskaintzea.
- 3.13** Irakasleak euskara eta euskalduntze kultura sakontzera animatzea.

### **Giza eta zerbitzu arloan**

- 3.14** Eskolatik kanpo harreman eta komunikazioetan euskararen erabilpena bultzatzea.
- 3.15** Euskara izatea eskola komunitatean parte hartzen duten talde guztien hizkuntza (jangela, kirola eta eskolaz kanpoko ekintzak).

